

# EDITORIALA

Iprensaren lehenengo alea argitaratu genuenetik ia bost urte pasa dira. Urte hauetan gure eskola-prentsa digitalaren proiektua sendotzen eta indartzen joan da. Argitaratu ditugun ale guztiei erreparatzen badiegu, bertan aurki daitezke Lauaizetak urte hauetan izan duen bizitzaren une asko jasotzen dituzten lanak.

Oraingoan, 14. zenbaki honetan, Emakumearen Nazioarteko Egunari eskaini nahi izan diogu arreta berezia. Aldarrikapen egun hori ospatzeko, beste ekintza batzuen artean, flashmob bat egin genuen, eta horren bideoa bertan aurki dezakezue.

Horretaz gain, beti bezala, euskarak behar duen bultzadari eskaini nahi izan diogu lekua, gure inguruan bere erabilera bultzatzeko egiten diren ekimenetan arreta jarriaz.

Lan asko eta txukuna egiten da Lauaizetan, gela barruan zein kanpoan; horren adibide ugari ekarri dugu oraingoan ere iPrenstara: idazlanak, irteerak, artelanak... Gure aldizkari hau da beraz, egiten duguna zabaltzeko eta erakusteko dugun leihorik onena. Horrela izan da orain arte eta horrela izaten jarraitzea da gure asmoa.

Iprensa Batzordea